

## ESKERTZA

Bilduma hau hainbat pertsona eta erakunderen lankidetzaren fruitu izanik, zor zaien aitortza egitea plazer dut atal honetan.

Lehenik eta behin, *Iura Vasconiae* Fundazioari eskertza adierazi nahi nioke, zeinaren Patronatuak eta bereziki Fundazioaren Presidente den Gregorio Monreal Ziak, eta Roldán Jimeno Aranguren, Zuzendariak, gogo onez eta ekintzailetasunez jaso baitzuten hasieratik Nafarroako eta Euskal Autonomia Erkidegoko Euskal Zuzenbide Zibilaren gaineko azterketa konparatua abiatzeko egin nuen proposamena. Ordutik aurrera *Iura Vasconiae*-n hezur mamitutako saio guztiak babestu eta bermatu izan dituzten moduan, laguntza zuzena eman zuten ere UEUko Jardunaldiak prestatu, eta bertan parte har zezaten Nafarroako lankideak gonbidatzen.

Xanti Goñi Zabala abokatu eta lankideari zor zaio lehen Jardunaldi hauek UEUn antolatzeko ideia eta horiek zuzentzeko ardura. Mikel Karrera Egialde, Zuzenbide Zibil Saileko irakaslearekin batera, bilduma honen oinarrian dagoen lehen saio honen antolakuntzan lan fina eginak dira biak. Haiek gabe ezingo genuke, bada, gaur bilduma hau eskuartean izan.

UEUri eskerrik beroenak emateko abagunea da hau. Izan ere, ekimena aurkeztu genien unetik zinez arduratu baitziren Jardunaldi hauek bere programan jaso eta aurrera ateratzen. Aipamena egin nahi nieke, bereziki, Yolanda Mendiola abokatu eta UEUko Zuzenbide atalaren zuzendariari, eta Irati Iciar, ikastaroen antolamendu-arduradunari: biei eskerrak gure iradokizun guztiak jasotzeagatik eta hain modu zintzo eta eraginkorrean egindako lanagatik.

Azkenik, aipatu nahi nituzke Jardunaldietan parte hartu eta, ondoren, bilduma honetarako beren kontribuzioa idatzi duten profesionalei, zeinak ordezkatzten baituten erakunde sorta oparoa: Eusko Legebiltzarra, Euskal Zuzenbidearen Akademia, Nafarroako Unibertsitatea, Deustuko Unibertsitatea eta UPV/EHU. Euskal Zuzenbidearen abaroan bildu garen euskal juristen komunitate anitza islatzen duen bilduma honen autore guztiei nire esker ona eta aitortza adierazi nahi diet.

ITZIAR ALKORTA IDIAKEZ